

# Ez da hondoratzen!



**S**an Joan baleontziak liluratuta utzi ditu Marikalanbre eta haren bi lagunak.

–Bai dotorea! –esan du Uxuek–. Eta erreparatu diezue portuko beste ontziei? Batzuk erraldoiak dira, eta burdinazkoak. Ez dut ulertzen nolatan ez diren hondoratzen!

–Egia! A zer misterioa! –Ibrahimek, Uxue bezain harrituta.

–Ez da hainbestearainokoa –bota die Marikalanbrek–. Nahi baduzue, esperimentu bat egingo dugu, eta orduan ulertuko duzue.



## Itxurak axola du

Nola lortu plastilina zati bat ez hondoratzea uretan?

## Materiala

Bi plastilina zati, biak berdinak.  
Urez betetako bi ontzi

## Zer egin?

Hartu zatietako bat, eta bola-itxura eman. Bestearekin, berriz, egin txalupa bat. Jarri uretan, aurrena bat eta gero bestea. Begiratu zer gertatzen zaien.

## Zer gertatu da?

Marikalanbrek lagunei azaldu dien bezala, urak gorantz egiten duen indarra gauzek duten pisuaren eta itxuraren arabera da. Txalupak bolak adina pisatzen du, baina hark baino azalera handiagoa du. Horregatik flotatzen du; bola, ordea, trinkoa denez, hondoratu egiten da.



Esan eta egin.

Marikalanbreren argibideei jarraituta, urez betetako ontzi bat eta plastilina zati bana hartu dute bi lagunek. Uxuek plastilinazko bola trinko bat egin du; Ibrahimek, berriz, bere zatia luzatu eta zapaldu egin du, txalupa-itxura eman arte. Gero, uretan jarri dituzte.

–Zurea hondoratu egin da, eta nirea ez! –ospatu du Ibrahimek.



-Uste dut badakidala zer gertatu den...  
-ausartu da Uxue-. Nonbait, materialak  
eta pisuak ez ezik, itxurak ere eragiten  
du flotatzean, ezta?



-Hori da! -txalotu du Marikalanbrek-. Urak gorantz  
egiten duen indarra pisuaren eta gauzek uretan  
hartzen duten lekuaren arabera da. Horregatik  
flotatzen du txalupak; bolak adina pisatzen du,  
baina leku handiagoa hartzen du. Arkimedes  
bezain azkarra zara, Uxue!

-Nor da Arkimedes? Ederra marka; misterio bat  
argitu orduko, beste bat sortzen zaigu!

